

HAN @ HAN

HAN PITTU HAN-Euskaldunen konpartaren aldizkaria 1.366. 1.997.eko Ekaina.

97. eko ASTE NAGUSIA hasi da.

Aurtengo Aste Nagusiaren prestatze lanak hasi ditugu iada. Ale honetan batzorde ezberdinen berri izango duzu, ze nolakoa izango da gure txosna, zer egingo dugu gure 10. urteurrena dela eta, zelan eta zertan lagun dezakezun eta abar...

.....

Ortutxarto-rekin elkarriketa:

Hau Pittu Hau munduan zehar:

MARI JAIA-ren ORDEZ
MACARENA-ko
AMABIRJINA

KAMISETA IPINI ETA
MUNDUAN IBILI



Josu Ortutxarto

Gure lehenengo ale honetan Ortutxarto-rekin elkarriketatu gara. Ez galdu, Aste Nagusiaren eta Euskararen inguruan egiten dituen adierazpenak.



Asmatu non egon zen Jurgi oporretan

Ortutxarto-rekin elkarrizketa:

Duela egun batzuk Josu Ortutxartorekin hitz egitera joan ginen eta orain irakurriko duzuen elkarrizketa lortu genuen. Jakina! erderatik itzuli behar izan dugu.

MARI JAIA-ren ORDEZ MACARENA-ko AMABIRJINA



Hau...Hau- Hasteko, Aste Nagusiaren etorkizunaz galdetuko dizugu, zein izan beharko litzateke Bilboko jai nagusiaren eremua?

Ortutxarto- Bai, badakizuenez ni oso tradizionala naiz. Bilbo Espainako hiri bat izanda zera eduki beharko luke bere Semana Grande-n: zezenak, antzerkia, prozesioak, sevillanak eta jaiak hoteletan «jet-set»-arekin.

Hau...Hau- Beraz gaur egun dagoen eremua?, hau da, konpartsak, herriaren partehartzea, Mari-Jaia eta abarrekin zer?

Ortutxarto- Bai Konpartsekin badakigu zer egin, Semana Grande-n mega-super-makro diskoteka bat antolatzen utziko diegu, baina Mungian edo Erandion edo molestatuko ez duten lekuren batetan. «Bakalao a todo trapo» hori da gazteriak nahi duena, eta emango diegu zeren dantzatzen eta pastillak hartzen baldinbadaude ez dizkigute beste «jai mota» batzuk antolatuko. Mari Jaia sakralizatuko dugu, ez da gehiago irudi paganorik izango,

hemendik aurrera «Virgen de la Macarena» izango da. Beraz Semana Granden Macarena-rengana joango gara prozezioan, sevillanak abesten gainera.

Hau...Hau- Eta Euskal kulturari buruz?

Ortutxarto- Ah...bai...hori, horrek ez du ajola, kontutan edukiko dugu, ziur. «Los cinco Bilbainos» eta «Los chimberos»-ekin hamar urtetarako kontratua zinatuz dugu eta «Que pasa pues» humore taldea ekarriko dugu «que son muy buenos y muy vascos».

Hau...Hau- Ta Euskara?

Ortutxarto- Berrito gauza berdinarekin? Euskararen alde gaude baina pasatu gabe, azken batean Bilbo hiri turistikoa bihurtu nahi dugu eta ez dituzue bezeroak uxatuko hizkuntza horretan zaunka eginez. Modernoak izan behar gara, Guggenheim, Olimpiadak, Metroa eta halako gauzak, ulertzen didazu?

Beno hemen utzi genuen elkarrizketa goragalea sartu zitzaigulako, ze nolako etorkizuna, eta txarrena zera da garbi ez badute esaten ere hau dela beraienn benetako asmoa. Ortuondo.....barkatu.....**Ortutxarto EZ DUZU LORTUKO**

HAU...HAU

informatzen

Azpiegitura Batzordea

Txosnaren proiektua prest dago, ia iaizkoa bezalakoa izango da baina apur bat txikiagoa, baxuagoa, eta euskal txokoak ez du bigarren solairua edukiko.

Goirimendi enpresarekin hitz egin dugu (o dios mio) ia ze prezioan ipintzen digun.

ZERBAITEN BERRI EMAN NAHI DUZULA???

Ba deitu 4162730-era edo idatzi:
Hau...Hau
Dendarikale 9, 48005
Bilbo

Aktibitate Batzordea

Lehenengo bilera gauzatu da honako emaitzekin:

10. Urteurrenaren ospakizunak Aste Nagusiaren Astelehenean cgingo ditugu eta cgitaraa gutxi-gora-behera izango da:

- Bazkaria kide zaharrekin (gu ere bai, noski)
- Ekitalditxo bat
- Hau Pittu Hau-ren pertsonai xelebrenci sari banaketa (sariak bozkaketaz emango dira)
- Argazki erakuzketa (tabernaren batetan eta Aste Nagusia baino lehenago)
- Bertsotrikikalerjira
- Antzerkia
- Kontzertua

Jakina denez laguntza behar dugu, batez ere antzerkia antolatzeko, gure asmoa ekainak 27an berriro biltzea da Jaunak Tabernan arratsaldeko 6:30etan, beraz lagundu nahi bagaituzu, badakizu, etorri beldurrik gabe.

HURRENGO BILERA

Oraindik ez dakigu hurrengo bileraren data, seguruenek azterketen ostean izango da, beraz ez kezkatu, deituko dizugu, orain:

IKASI!!!!

AHAL
BALDIN
BADUZU

ETORRI!!!

AZKEN
UNEAK

UZTAILAK 19

BILERA

LEKUA: PISU

ORDUA: 19:30

Jurgi EGIPTON



Bai Egipton egon zen.
Esparru honetan
konpartsakideen
argazki bitxiak atera
nahi ditugu, lagundu
eta bidali baten bat.

ZER PENTSATZEN DUTE GUTAZ??



ELEFANTEA

*Nire anaia ez zen hil au-
topista istripu batetan,
ziur nago.*



MARI JAIA

*Hau Pittu Hau nire gona
azpian sartzen denean
gozatzen dut.*